



Irailaren 26ko 42/2006 FORU DEKRETU, zerga urraketen eta zigorren araubidea garatzeko Erregelamendua onartzen duena.

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako Foru Dekretu osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran, foru dekretuaren zenbat artikulua aldatu dituzten xedapenen zerrenda ere ageri da.

AURKIBIDEA

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK	6
1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua	6
2. artikulua. Zerga egoeraren borondatezko erregularizazioa zigorren alorrean	6
3. artikulua. Zerga urraketak osotasunean kontuan hartzea	6
4. artikulua. Zigor Kodearen 305. eta 305 bis artikuluetan aurreikusitako delituen kasuetan egin beharreko jarduketak	7
4. bis artikulua. Ogasun publikoaren aurkako beste delitu ba-tzu-en kasuetan egin beharreko jarduketak	7
II. KAPITULUA. DIRUZKOAK EZ DIREN ZIGORRAK JARTZEA	8
5. artikulua. Diruzkoak ez diren zigorrak zerga urraketengatik	8
6. artikulua. Diruzkoak ez diren zigorrak jartzerakoan zigor prozeduren tramitazioan kontuan hartu beharreko berezitasunak	9
III. KAPITULUA. DIRUZKO ZIGORRAK JARTZEA	9
1. SEKZIOA. MAILAKATZE IRIZPIDEAK	9
7. artikulua. Mailakatze irizpideen aplikazioa	9
8. artikulua. Zerga urraketak berriro egitea	10
9. artikulua. Datuak ezkutatzea (edukirik gabe)	11
10. artikulua. Iruzurbideak erabiltzea edo tarteko pertsonaz baliatzea	11
11. artikulua. Interesatuak ikuskariaren jarduketetan modu berezian laguntzea	13
12. artikulua. Zigorrak murriztea	14
2. SEKZIOA. ZERGA ALORREKO URRAKETA ETA ZIGOR JAKIN BATZUETARAKO ARAU BEREZIAK	15
1. azpisekzioa. Zigorrak kalkulatzeko Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 195., 196. eta 197. artikuluetan jasota dauden urraketak egiten direnean	15
13. artikulua. Zigorraren oinarria kalkulatzeko Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 195., 196. eta 197. artikuluetan jasota dauden urraketak egiten direnean	15
14. artikulua. Datuak ezkutatzeko duen eragina kalkulatzeko	16
15. artikulua. Faktura, frogagiri edo agiri faltsu edo faltsutuak nahiz tarteko pertsona erabiltzearen eragina kalkulatzeko	18
2. azpisekzioa. Beste zerga urraketa eta zigor batzuk mugatu eta kuantifikatzeko arau bereziak	19



16. artikulua. Zerga urraketa, partida positiboak edo negatiboak nahiz itxurazko zergakredituak oker zehaztu edo frogatzeagatik.	19
17. artikulua. Zerga urraketa, autolikidazio edo aitorpenak epe barruan ez aurkezteagatik kalte ekonomikorik sortu gabe.	21
18. artikulua. Zerga urraketa, autolikidazio edo aitorpenak oker aurkezteagatik kalte ekonomikorik sortu edo banakako informazio errekerimenduei erantzun gabe.	21
18 bis artikulua. Zerga urraketa, autolikidazioak, aitorpenak edo zerga garrantzia duten bestelako dokumentuak bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoak erabiltzeko obligazioa bete gabe aurkezteagatik.	23
19. artikulua. Zerga urraketa, kontabilitate eta erregistro obligazioak ez betetzeagatik.	23
20. artikulua. Zerga urraketa, fakturazio edo dokumentazio obligazioak ez betetzeagatik.	25
21. artikulua. Zerga urraketa, Zerga Administrazioaren lanaren aurka egin, eragozpen edo aitzakiak jarri edo uko egiteagatik.	25
22. artikulua. Zerga urraketa, atxikipenei edo konturako sarrerei buruzko ziurtagiria aurkezteko obligazioa ez betetzeagatik eta tributu bakoitzaren araudian jasotako beste obligazio batzuk ez betetzeagatik.	26
IV. KAPITULUA. ZIGOR PROZEDURA	27
1. SEKZIOA. XEDAPEN OROKORRAK.....	27
23. artikulua. Zerga zigorrak jartzeko prozedura.	27
2. SEKZIOA. ZIGOR PROZEDURAREN TRAMITAZIO BEREIZIA	27
24. artikulua. Zigor prozedura hastea.	27
25. artikulua. Zigor prozedura instruitzea.	28
26. artikulua. Zigor prozedura ebaztea.	28
27. artikulua. Prozedura laburtua.	29
28. artikulua. Ikuskaritza prozeduretako baten ondorioz hasitako zigor prozedurak bereizita tramitatze berezitasunak.	30
3. SEKZIOA. ZIGOR PROZEDURA ETA ZERGAK APLIKATZEKO PROZEDURA BATERA TRAMITATZEA.....	31
29. artikulua. Zigor prozedura eta zergak aplikatzeko prozedura batera tramitatzea	31
V. KAPITULUA. ZIGORRAK EXEKUTATZEA.....	32
30. artikulua. Zigorren exekuzioa etetea.	32
VI. KAPITULUA. ZERGA ZIGORRAK BARKATZEA	32
31. artikulua. Zerga zehapenak barkatzeko eskaerak ebatzi ditzaketen organoak.	32
32. artikulua. Eskatzeko epea.	32
33. artikulua. Eskaeraren baldintzak.	33
35. artikulua. Zehapenaren exekuzioa etetea.	34
36. artikulua. Ebaztea.	35
XEDAPEN GEHIGARRIA	35

ZIOEN AZALPENA

2005eko uztailaren 1ean Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 FORU ARAU OROKORRA indarrean sartu izanak berrikuntza garrantzitsuak sartu ditu zerga urraketen eta zigorren araubidean, bere aurrekoa izan den urtarrilaren 31ko 1/1985 FORU ARAUAREKIN alderatuta. Zehazki esanda, martxoaren 8ko foru arauak urraketen eta zigorren araubide berria jasotzen du IV. tituluan, eta horrek ezinbestean dakar bere apartatuetako batzuetan behar den arauzko garapena egitea Gipuzkoako zerga zigorren araubidea ixteko.



Lehenik eta behin azpimarratzekoa da zigor araubide berria 1/1985 FORU ARAUAN jasotakoa baino zabalagoa eta osatuago datorrela, lehenago erregelamenduz garatzeko uzten ziren hainbat aspektu erregulatuta ageri baitira orain foru arauan. Hori hala izanik ere, badira oraindik foru arau berrian hainbat artikulua, dela zailtasun teknikoengatik, dela erregelamenduz hobeto garatu litezkeen gaiak izateagatik, tresna arauemaile horren bitartez arautzeko utzi direnak. Honako artikulua dira hain zuzen:

— 190. artikulua, diruzkoak ez diren zerga zigorreko buruzkoa,

— 191. artikulua, zigorrak kuantifikatzerakoan aplikagarri diren mailakatzeko irizpideei buruzkoa,

— 194. artikulua, zerga zigorrak iraungitzea eta, bereziki, zigorrak barkatzeari buruzkoa,

— urraketa mota jakin batzuk egitean aplikagarri diren zigorren garapena: autolikidazioak edo aitorpenak oker aurkeztean kalte ekonomikorik sortu gabe edo banakako informazio errekerimenduei erantzun gabe (203. art.), edo zerga Administrazioaren lanari aurre egin, eragozpen edo aitzakiak jarri edo uko egitean (208. art.),

— eta azkenik, zigor prozedurari buruzkoa.

Horixe da, beraz, onartzeko aurkezten den erregelamenduaren xedea.

Orain arteko erregelamenduzko erregulazioan ez bezala –erregulazio hori otsailaren 11ko 4/1997 FORU DEKRETUAN jasota dago, Zergen Foru Arau Orokorrak zerga urraketa eta zigorreko buruz nahiz zerga zigorren barkamenari buruz emandako xedapenak garatzekoan, testu berrian desagertu egiten da, 2/2005 foru arauak ezarritakoaren haritik, zerga alorreko urraketak arinen eta larrien artean banatzen dituen sailkapena. Gainera, zigorrak mailakatzeko irizpideak konkretatu egin dira, eta zehaztasun handiagoz jokatu da aipatutako foru arauan jasota dauden zigor proportzionalitateko batzuk mailakatzekoan, administrazioak zigor araubidea aplikatzean duen diskrezionaltasun maila murrizteko. Era berean, aipatzekoa da erregelamendu berrian zigorren oinarria izeneko kontzeptua aplikatzen dela, zigorrak mailakatzeko funtsezko ardatza delako eta araubidea objektibizatzeko aukera ematen duelako foru arauaren izaera erregulatzaileari jarraituta.

Zigor prozedurari dagokionez, adierazi behar da erregelamendu honetan zigor prozedura bereziaren berezitasunak jasotzen badira ere, zigor prozedura eta zergak aplikatzeko prozedura batera tramitatzen direnean haren berezitasunak zergak aplikatzeko prozedurak garatzen dituzten erregelamenduetarako utzi direla.

Bestalde, erregelamenduan zerga zigorrak barkatzeko araubidea ere garatzen da, eta esan liteke orain arte indarrean egon denaren ildo beretik datorrela.

Azkenik, erregimen iragankor bat jasotzen da lehenago hasitakoak izanik araudia erregelamendu hau indarrean sartu baino lehen oraindik amaitu gabe dauden



prozeduretarako. Horrek guztiak, noski, ez du eragozten aldekoagoa den zigor araubidean atzeraeraginaren printzipioa aplikatzea 2/2005 FORU ARAUAREN hirugarren xedapen iragankorrean jasotzen den moduan.

Horiek horrela, Fiskalitaterako eta Finantzetarako foru diputatuak proposaturik, Lege Aholkularitza Batzordearekin bat etorriz, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT

Artikulu bakarra. Zerga urraketen eta zigorren araubideari buruzko Erregelamendua onartzea.

Onarturik geratzen da zerga urraketen eta zigorren araubideari buruzko Erregelamendua, jarraian ageri den testua duena.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehena. Zerga zigor araubide berria atzerako eraginez aplikatzea.

1. Foru dekretu honen bidez onartzen den erregelamendua aplikagarria izango zaie Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorra indarrean sartu aurretik egindako zerga urraketei, baldin eta bere aplikazioa onuragarriagoa bada subjektu urratzailearentzat eta ezarritako zigorrak irmotasuna hartu ez badu, esandako foru arauak hirugarren xedapen iragankorraren 1 apartatuan xedatzen duen bezala.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorra indarrean sartu ondoren egindako zerga urraketei eta foru dekretu honetan onartutako erregelamendua indarrean sartu aurretik egindakoei foru dekretu honetan onartutako erregelamendua aplikatuko zaie, baldin eta horren aplikazioa urratzailearentzat onuragarriagoa bada eta ezarritako zigorrak irmotasuna hartu ez badu.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa hala izanik ere, foru dekretu honetan onartzen den erregelamenduko I., II., IV. eta V. kapituluetan jasota dauden prozedura arauak honako zigor prozedurei ere aplikatuko zaizkie: erregelamendu hau indarrean sartu ondoren hasten diren zigor prozedurei eta, orobat, martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua indarrean sartzean jada hasita egonik ere, erregelamendu hau aplikatzen hastean oraindik amaitu gabe daudenei, zigor araubide aplikagarria zeinahi dela ere.

2. Araubiderik onuragarriena aplikatzearen ondorioetarako, zigorraren azken zenbatekoa hartuko da kontuan, baina, betiere, martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauaren 192. artikulua adostasuna adierazten denerako aurreikusten duen murrizpena behin aplikatuta, hala badagokio.



Bigarrena. Mailakatze irizpidea modu iragankorrez aplikatzea zerga urraketak berriro egitean.

1. Zerga urraketak berriro egiteagatik erregelamendu honetako 7. artikuluan aurreikusita dagoen mailakatze irizpidea aplikatzeari begira, ezarritako zigorrek administrazio bidean irmoak badira eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko urtarilaren 31ko 1/1985 Foru Arauan jasotako zigor araubidea aplikatuta jarrita badaude, aurrekari gisa aintzat hartuko da subjektu urratzaileari lehenago beste zigor bat jarri izana izaera bereko urraketa batengatik.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, ulertuko da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko urtarilaren 31ko 1/1985 Foru Arau Orokorren 79. artikuluko a), b) eta c) letretan aurreikusitako urraketak eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorren 195., 196. eta 197. artikuluetan aurreikusitakoak izaera berekoak direla. Era berean, urtarilaren 31ko 1/1985 Foru Arauak 78.1.a) artikuluan jasotzen duen urraketa eta martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak 202. eta 203. artikuluetan aurreikusten duena izaera berekoak direla joko da.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra. Xedapenak indargabetzea.

1. Foru dekretu hau indarrean sartzen denean indargabetuta geratuko dira bertan xedatutakoarekin bat ez datozen edo aurka egiten duten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

2. Bereziki, ondoko xedapenak indargabetuko dira:

a) Otsailaren 11ko 4/1997 Foru Dekretua, Zergen Foru Arau Orokorrek zerga urraketa eta zigorrei buruz nahiz zerga zigorren barkamenari buruz emandako xedapenak garatzekoa.

b) Otsailaren 17ko 59/1997 Foru Agindua, Zergen Foru Arau Orokorrek zerga urraketa eta zigorrei buruz emandako xedapenak garatzen dituen otsailaren 11ko 4/1998 Foru Dekretuan jasota dauden zerga urraketa arin batzuei buruzko zigorrek finkatzen dituenak.

AZKEN XEDAPENA

Lehena. Arauak emateko ahalmena.

Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko foru diputatuak beharrezkoak diren xedapenak eman ahal izango ditu foru dekretu hau eta bertan onartzen den erregelamendua garatu eta aplikatzeko.

Bigarrena. Indarrean sartzea.



Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

ZERGA URRAKETEN ETA ZIGORREN ARAUBIDEARI BURUZKO ERREGELAMENDUA

I. kapitulua. Xedapen orokorrak.

1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua.

1. Erregelamendu honek osatu eta garatzen du Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak, zigortzeko ahalmena erabiltzeko buruz IV. tituluaren ezartzen duen erregulazioa.
2. Erregelamendu honetan xedatutakoa Gipuzkoako Lurralde Historikoko erakundearen eskumen arauemailearen eremuan ere aplikatuko da, ordezkio izaeraz eta zilegi gertatzen den guztian, ezartzen diren zerga zigorrak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrean ezarritakoak ez direnean.
3. Erregelamendu hau Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak, 1. artikuluan ezartzen duenari jarraituta aplikatuko da.

2. artikulua. Zerga egoeraren borondatezko erregularizazioa zigorren alorrean.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 184.3 artikuluan jasotakoaren ondorioetarako, ulertuko da zerga egoera norberaren borondatez erregularizatzen dela erregularizazio hori zerga obligazio bat betetzeko errekerimendua jakinarazi aurretik egiten denean edo egiaztapen edo ikerketa prozedura bat zein zigor prozedura bat hasita dagoela oraindik jakinarazi ez denean. Ondorio horietarako, aipatutako foru arauak 27.1 artikuluan aipatzen duen deia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea jakinarazpentzat hartuko da.

Zergapekoak dirusarrerak egiten baditu lehen aipatutako jakinarazpena jaso eta gero, sarrera horiek egin litekeen likidazioaren konturako sarreratzat hartuko dira, eta ez dute eragotziko bidezko zigorrak aplikatzea likidaziotik ateratzen den zerga zorraren eta jakinarazpena jaso aurretik sartutako zenbatekoen arteko diferentziaren gainean.

3. artikulua. Zerga urraketak osotasunean kontuan hartzea.

Zergak kudeatzeko prozedura berean balioak egiaztatzeak kenduta edo ikuskapen prozedura batean zergaldi edo likidazioaldi bat baino gehiago egiaztatzen denean, bidezko zigorrak jartze aldera ulertuko da prozeduraren xede



den zerga eta aldi bakoitzeko urraketa bat izan dela, foru arauetan tipifikatzen diren urraketa kasu bakoitzari dagokionez.

Urraketak zergaldi edo likidazioaldirik gabeko zergei dagozkienean edo aldizka aitortzen ez diren gertaera edo eragiketengatik egin direnean, zergari lotutako gertaera edo eragiketetatik eratortzen den zerga obligazio bakoitzeko urraketa bat dagoela ulertuko da.

Urraketak obligazio formalak ez betetzeagatik egiten direnean, ezbetetze bakoitzeko urraketa bat dagoela joko da.

4. artikulua. Zigor Kodearen 305. eta 305 bis artikuluetan aurreikusitako delituen kasuetan egin beharreko jarduketak.¹

1. Zerga Administrazioak irizten badu zergapekoaren jokabideak Zigor Kodearen 305. edo 305 bis artikuluetan jasotako delitua egitea dakarrela berekin, erruduntasun testigantza jurisdikzio eskudunera igarotzeak edo espedientea Fiskaltzara igortzeak ondoko ondorioak sortaraziko ditu:

a) Gertaera berberengatik zigor prozedurarik irekita egon ezean, Zerga Administrazioak ez du horrelako prozedurarik irekiko.

b) Aipatutako prozedura jada irekita egongo balitz, Zerga Administrazioak ez du jarraituko hura izapidetzen, amaitutzat joko baita.

c) Gertaera berberengatik zerga zehapen bat ezarri bada, haren exekuzioa eten egingo da.

Ondorioak berberak izango dira, zerga Administrazioa jakitun denean prozesu penala gertaera berberen gainean garatzen ari dela.

Apartatu honetan ezarritakoa ulertuko da zehapen prozedura berri bat hasteko aukeraren kalterik gabe dela edo, hala badagokio, aldez aurretik etenda utzitako administrazio zehapenaren exekuzioari berriro heltzearen kalterik gabe dela, delitu aztarnarik ikusten ez denean, epaitegiek frogatutzat jo dituzten gertaerak kontuan hartuta.

2. Agintaritza judizialaren kondena epaiak eragotziko du egitate berberak direlaeta administrazio zehapena ezartzea.

4. bis artikulua. Ogasun publikoaren aurkako beste delitu ba-tzu-en kasuetan egin beharreko jarduketak.²

¹ Artikulu hau martxoaren 20ko 6/2019 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zerga urraketen eta zigorraren araubidea garatzeko Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialen argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2019/03/29ko GAO).

² Artikulu hau martxoaren 20ko 6/2019 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko bi apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak zerga urraketen eta zigorraren araubidea garatzeko Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialen argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2019/03/29ko GAO).



1. Zerga Administrazioak uste badu egindako urraketa Zigor Kodearen 310. artikuluan aurreikusitako delitua izan daitekeela, aurreko artikuluan ezarritakoaren arabera jokatu da, gertaera berberengatik zigorrak ezartzeko prozedurari hasiera edo jarraipena eman gabe eta gertaera horiek urraketak mailakatzeko kontuan hartu gabe.

Apartatu honetan jasotako kasuetan deliturik antzematen ez bada, zerga Administrazioak hasiera edo jarraipena eman ahal izango dio zigor prozedurari epaileek frogatutzat jo dituzten gertaerak kontuan hartuta.

2. Zerga Administrazioaren ustez, aurkitutako gertaerek zantzurik erakusten badute Zigor Kodearen 306tik 308ra arteko artikuluetan aurreikusitako delituetako bat egina izan dela, administrazio horrek dilijentzia batean agerraraziko ditu gertaera eta zirkunstantziak, eta hori guztia administrazioaren organo eskudunari jakinaraziko dio behar den eran egiazta dezan. Nolanahi ere, dirulaguntzen kasuan, hauek Ogasun eta Finantza Departamentuak egiaztatu behar dituenean, aurreko artikuluan xedatutako eran jokatu da.

II. kapitulua. Diruzkoak ez diren zigorrak jartzea

5. artikulua. Diruzkoak ez diren zigorrak zerga urraketengatik.³

1. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak, 190. artikuluan 1. eta 4. apartatuetan ezarritakoari dagokionez, jarritako diruzko isuna 30.000 eurokoa edo handiagoa bada, dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera eta erreguzko izaera duten zerga onura eta pizgarriak aplikatzeko eskubidea galtzea edo herri Administrazioarekin ezin kontratatzea dakarren ezdiruzko isuna ondoko denbora tarteetarako ezarriko da, honako irizpideak kontuan hartuta:

a) Urtebetez, esandako artikuluan zigorra mailakatzeko jasota dauden irizpideak aplikatzean zigor hori gutxienez 40 puntu portzental gehitu denean.

b) Hemezortzi hilabetez, esandako artikuluan zigorra mailakatzeko jasota dauden irizpideak aplikatzean zigor hori gutxienez 60 puntu portzental gehitu denean.

c) Bi urtez, esandako artikuluan zigorra mailakatzeko jasota dauden irizpideak aplikatzean zigor hori gutxienez 90 puntu portzental gehitu denean.

2. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 190. artikuluan 1., 2. eta 4. apartatuetan aipatzen dituen ezdiruzko zigorrak jartzearen ondorioa salbuespenak, murrizpenak, kenkariak, hobariak edo erreguzko izaera duten bestelako zerga onura edo pizgarriak

³ Artikulu hau maiatzaren 19ko 15/2009 FORU DEKRETUAren artikulua bakarreko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak 2006ko irailaren 26ko 42/06 Foru Dekretuaz onartutako zerga urraketa eta zigorraren Erregelamendua aldatzen du. Aldaketa foru dekretua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2009/05/28ko GAO).



aplikatzeko eskubidea galtzea izan daiteke; hala ere, honako hauek kanpoan geratzen dira:

- a) Ondasun eta zerbitzuen eskuratzaleei nahitaez jasanarazi behar zaizkien zeharkako zergetan aurreikusitakoak.
- b) Barne antolamenduaren osagai diren nazioarteko itun eta hitzarmenetatik ondorioztatutakoak.
- c) Nazioarteko elkarrekikotasun printzipioa aplikatzeagatik emandakoak.

6. artikulua. Diruzkoak ez diren zigorrak jartzerakoan zigor prozeduren tramitazioan kontuan hartu beharreko berezitasunak.

1. Zerga urraketak egiteagatik diruzkoak ez diren zigorrak ezartzea ekar dezaketen gertaerak edo zirkunstantziak behin egiaztatzen direnean, zigor prozedura hasiko da hala bide denean. Prozedura hori artikuluko honetan xedatutakoa eta, halakorik ezean, titulu honetan jasotakoa betez izapidetu eta ebatziko da. Hala ere, hori ez da oztopo izango zerga bakoitzaren araudian xedatutakoa aplikatzeko bertan aipatzen diren zigor ezdiruzkoei dagokienez.

Diruzkoak ez diren zigorrak ezartzea helburu duen zigor prozedura izapidetzen denean diruzko zigorra ezartzeko ebazpenaren elementuak ezin izango dira eztabaidatu.

2. Aurreko apartatuan jasotakoaren ondorioetarako, diruzko zigorra ezarri duen organoak eskumena izango du zigor prozedura hasteko. Horretarako, egindako dilijentziaren edo aktaren eta gainerako aurrekarien kopia bana erantsiko zaio espedienteari.

Diruzkoa ez den zigorra ezartzeko organo eskuduna Diputatuen Kontseilua denean, Fiskaliterako eta Finantzarako Departamentuko foru diputatuak izango du zigor prozedura hasteko eskumena.

3. Kasu horietan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 214. artikuluko 2 apartatuan aipatzen duen sei hilabeteko epea diruzko zigorra ezartzen duen administrazio egintza jakinarazten den egunetik aurrera hasiko da zenbatzen.

III. kapitulua. Diruzko zigorrak jartzea

1. sekzioa. Mailakatze irizpideak.

7. artikulua. Mailakatze irizpideen aplikazioa.

1. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak, 191. artikuluan aipatzen dituen mailakatze irizpideak irizpide bakoitzaren eragina jasaten duen zerga kuotaren zatiari edo, hala badagokio,



esandako foru arauaren 189.2 artikuluan aipatzen den isunaren zatiari aplikatuko zaizkio.

2.⁴ Liburu edo erregistroak behar bezala ez eramateak edo agiri zein euskarri faltsuak edo faltsutuak erabiltzeak nolako eragina duen kalkulatzeko orduan hainbat gehikuntza kontuan izateak ez du galaraziko zenbateko horiek berak zigorra mailakatzeko aintzat hartzen diren bestelako zirkunstantzien kalkuluan sartzea, bidezkoa denean.

3. Sekzio honetan jasota dauden mailakatzeko irizpideak aplikatzearen ondorioetarako, zerga zorra Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak, 57. artikulua 1 apartatua araututakoa izango da.

8. artikulua. Zerga urraketak berriro egitea.

1. Zilegi izango da mailakatzeko irizpidea aplikatzea zerga urraketak berriro egiteagatik, baldin eta izaera bereko zerga urraketa batengatik subjektu urratzaileari lehendik jarri zaion zigorra administrazio bidean irmo bihurtu bada urraketa berria egin aurreko lau urteen barruan.

Ondorio horietarako, urraketak izaera berekoak izango dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak, IV. tituluaren III. kapituluko artikulua berberaren barruan jasota ageri direnean. Nolanahi dela ere, 2/2005 Foru Arauaren 195., 196. eta 197. artikuluetan aurreikusitako urraketa guztiak izaera berekoak direla joko da.

2. Zirkunstantzia hori ematen bada Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 195etik 197ra arteko artikuluetan aipatzen dituen urraketen kasuan, zigor gisa jarriko den isun proportzionalaren gutxieneko portzentajea 10 puntu portzentual gehituko da aurretik jarrita dagoen zigor bakoitzeko. Dena den, zigorraren portzentajea ezingo da 30 puntutik gora gehitu.

3. Zirkunstantzia hori ematen bada diruzko isun finkoa dakarten zigorren kasuan, aplikatu beharreko zigorra %100 gehituko da aurretik jarrita dagoen zigor bakoitzeko. Dena den, zigorraren zenbatekoak ezin izango du inoiz gainditu aipatu artikuluetan ezarritako gehienekoa, halakorik ezarri bada, eta ezin izango da %300tik gora gehitu.

4. Bakarrik mailakatzeko irizpide hau aplikatzearen ondorioetarako, egiaztapen edo ikerketa jarduketak beretik eratortzen diren izaera bereko urraketa guztiak aurrekari bakar modura konputatuko dira. Jarduketak hasi edo zabaldu izanaren jakinarazpenean oinarritutako jarduketengatik ageri diren urraketak hartuko dira halakotzat.

⁴ Apartatu hau martxoaren 20ko 6/2019 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zerga urraketen eta zigorren araubidea garatzeko Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialen argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2019/03/29ko GAO).



9. artikulua. Datuak ezkutatzea (edukirik gabe).⁵

10. artikulua. Iruzurbideak erabiltzea edo tarteko pertsonaz baliatzea.

1. Iruzurbidetzat hartuko da kontabilitatean eta zerga araudiak ezartzen dituen liburu edo erregistroetan gorabehera nabarmenak agertzea, eta faktura, frogagiri edo bestelako agiri edo euskarri faltsuak edo faltsutuak erabiltzea.

2.⁶ Ondorio horietarako, bereziki honako kasuak gertatzen direnean ulertuko da gorabehera nabarmenak daudela:

a) Kontabilitatea edo zerga araudiak ezarritako liburu edo erregistroak eramateko obligazioa batere ez betetzea. Horrelakoetan, gutxieneko zigorra 50 puntu portzentual gehituko da.

b) Jarduera eta ekitaldi ekonomiko berberari buruz kontabilitate bat baino gehiago eramatea eta horiek oztopo izatea enpresaren benetako egoera zein den jakiteko. Horrelakoetan, gutxieneko zigorra 60 puntu portzentual gehituko da.

c) Kontabilitate liburuak edo zerga araudiak ezartzen dituen bestelako liburu edo erregistroak behar bezala ez eramatea, idazpenak, erregistroak edo zenbatekoak oker egin edo aipatu gabe utzi direlako nahiz dagokienaz bestelako esanahia duten kontuak erabili direlako. Horrelako zirkunstantzia betetzen dela ulertu ahal izateko, beharrezkoa izango da aipatu gabeko, oker jarritako edo behar ez diren kontuetan erregistratutako sarrera, gastu, aktibo edo pasiboen zenbatekoak, goitik edo behetik, eta konpentsazio aritmetikorik gabe, eratzen duen kopurua zergaldian kontabilizatu edo erregistratu diren sarrera edo gastu guztien %15 izatea gutxienez edo, bestela, urraketa egin den ekitaldiko azken balantzean ageri den aktibo edo pasibo osoaren %5 adieraztea.

Aipatu gabeko, oker jarritako edo behar ez diren kontuetan erregistratutako kargu edo abonuen zenbatekoak, goitik edo behetik, kopuru osoarekiko hartzen duen portzentajea	Zigorraren gehikuntza (portzentajeazko puntuetan)
%15etik %25era	25
%25 baino gehiagotik %50era	40

⁵ Artikulu hau martxoaren 20ko 6/2019 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko lau apartatuak edukirik gabe utzi du. Aipatutako foru dekretuak zerga urraketen eta zigorraren araubidea garatzeko Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialen argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2019/03/29ko GAO).

⁶ Apartatu hau maiatzaren 19ko 15/2009 FORU DEKRETUAREN artikulua bakarreko hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak 2006ko irailaren 26ko 42/06 Foru Dekretuaz onartutako zerga urraketa eta zigorraren Erregelamendua aldatzen du. Aldaketa foru dekretua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2009/05/28ko GAO) eta foru dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera egindako urraketei aplikatuko zaie.



%50 baino gehiago	60
-------------------	----

Letra honetako lehen paragrafoan aipatzen den zenbatekoa urraketa egin den ekitaldiko azken balantzean ageri den aktibo edo pasibo osoaren %5 denean, zigor gisa jarriko den diruzko isun proportzionalaren gutxieneko portzentajea ondorengo irizpideen arabera gehituko da:

Urraketa egin den ekitaldiko azken balantzean ageri den aktibo edo pasibo osoarekiko hartzen duen portzentajea	Zigorren gehikuntza (portzentajezko puntuetan)
%5etik %15era	25
%15 baino gehiagotik %40ra	40
%40 baino gehiago	60

Lehen adierazitako zirkunstantziak betetzen direla ulertuko da baldin eta martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 195.etik 197.era bitarteko artikuluetan arautzen dituen urraketak egiteko beharrezko tresna izan badira.

3. Faktura, frogagiri edo bestelako agiri edo euskarri faltsuak edo faltsutuak erabili direla ulertuko da egin gabeko eragiketarak osoosorik edo zati batean jasotzen dituztenean eta urraketa egiteko tresna izan direnean. Zirkunstantzia hau ez dela gertatzen ulertuko da agiri edo euskarri faltsu edo faltsutuek zigorraren oinarrian duten eragina %10 baino handiagoa ez denean.

Zirkunstantzia hori betetzen denean, zigor gisa jarriko den diruzko isun proportzionalaren gutxieneko portzentajea ondorengo irizpideen arabera gehituko da:

Agiri edo euskarri faltsu edo faltsutuek zigorraren oinarrian duten eraginaren portzentajea:	Zigorren gehikuntza (puntu portzentualetan)
%10etik gora eta %25etik behera	25
%25etik %50era	45
%50etik gora	65



Lehen adierazitako zirkunstantziak betetzen direla ulertuko da baldin eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak, 195etik 197ra arteko artikuluetan arautzen dituen urraketak egiteko beharrezko tresna izan badira.

4. Tarteko pertsona fisikoak, juridikoak edo entitateak erabili direla ulertuko da subjektu urratzaileak, bere nortasuna ezkutatu nahian, hirugarren baten izenean jarri dituenen, haren baimenarekin edo baimenik gabe, ondasun edo eskubideen titularitatea, errentak edo ondare irabaziaz lortzea edo zerga alorrean eragina duten eta bete gabeko zerga obligazioa sortzen duten eragiketak egitea.

Zirkunstantzia hori betetzen denean, zigor gisa jarriko den diruzko isun proportzionalaren gutxieneko portzentajea ondorengo irizpideen arabera gehituko da:

Tarteko pertsona edo entitatea erabiltzeak zigorraren oinarrian duen eraginaren portzentajea	Zigorraren gehikuntza (puntu portzentualetan)
%25eraino	50
%25 baino gehiagotik %50era	60
%50etik gora	75

Lehen adierazitako zirkunstantziak betetzen direla ulertuko da baldin eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak, 195etik 197ra arteko artikuluetan arautzen dituen urraketak egiteko beharrezko tresna izan badira.

5. Aurreko 2, 3 eta 4 apartatuetan jasotako zirkunstantziak zein bere aldetik hartuko dira kontuan, eta horietako bakoitzak zigorraren portzentajea izan dezakeen gehikuntza bereizita zehaztuko da.

Mailaketa irizpide hau erabiltzeagatik zigorraren portzentajea zenbatean gehitzen den kalkulatzeko, aurreko paragrafoan aipatutako gehikuntzak batuko dira.

Horrela kalkulaturako gehikuntzen batura 100 puntutik gorakoa denean, gehikuntza portzentaje aplikagarria kopuru horretaraino murriztuko da.

11. artikulua. Interesatuak ikuskarien jarduketetan modu berezian laguntzea.

1. Zirkunstantzia hau gertatzen dela ulertuko da ikuskarien jarduketetan zehar zergapekoek zerga Administrazioak nekez lor ditzakeen datuak beren kabuz ematen dituztenean eta horrek zerga zorra gehitzea dakarrenean.



2. Zirkunstantzia hori Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 195etik 201era arteko artikuluetan araututako urraketetako bat egitean gertatzen denean, esandako laguntzagarik gehitutako kopuruari aplikatuko zaion zigorraren gutxieneko portzentajea honako puntu portzentual murriztuko da:

10 puntu, baldin eta aipatutako kopurua egiaztapen edo ikuskapen jarduketengatik agerian jarritako zerga zorraren %20tik beherakoa bada.

20 puntu, baldin eta aipatutako kopurua egiaztapen edo ikuskapen jarduketengatik agerian jarritako zerga zorraren %20tik gorakoa eta %50etik beherakoa bada.

30 puntu, baldin eta aipatutako kopurua egiaztapen edo ikuskapen jarduketengatik agerian jarritako zerga zorraren %50etik gorakoa bada.

12. artikulua. Zigorrak murriztea.⁷

1. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak, 192.1 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, foru arau horren III. tituluko III. kapituluaren arautzen diren zerga kudeaketako prozeduretan, eta adostasuna espresuki ematea eskatzen ez bada, ulertuko da zergapekoa ados dagoela likidazioaren edo zigorraren aurka errekurtsorik edo erreklamazio ekonomikoadministratiborik aurkeztzen ez duenean.

Zergapekoak prozeduran zehar adierazten badu bere adostasun espresua, edo zigor prozeduraren ebazpena ematen den unean oraindik ez bada igaro likidazioaren aurka errekurtsio edo erreklamazioa aurkezteko epea eta horrelakorik aurkeztu izanaren berririk ez badago, zigorrari dagokion murrizpena aplikatuta jarriko da. Horrek ez du eragotziko, dena den, aplikatutako murrizpenaren zenbatekoa gero bueltatzeko exijitzea zergapekoak likidazio horren aurka errekurtsio edo erreklamazioa aurkeztzen duenean.

2. Ikuskapen prozeduretan, adostasuna emanda dagoela ulertuko da zergapekoak adostasun akta izenpetzen duenean edo, aktan formalizatutako erregularizazio proposamena proposamenean jakinarazitakoaren aldean behin aldatuta, zergapekoak ontzat hartzen baditu bai zerga erregularizazioa eta bai zigorra. Azken horiek ontzat emateko epea hamabost egun naturalekoa izango da akta egin edo jakinarazten den egunetik aurrera.

3. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak, 192. artikuluen 5. apartatuan aurreikusitako zigorraren murrizketan, ebazpen proposamenaren ondorengo alegazioen izapidean emango da adostasuna, aipatutako foru arauaren 192. artikuluen 2. apartatuan ezarritakoa gorabehera.

⁷ Artikulu hau martxoaren 20ko 6/2019 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko bost apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zerga urraketan eta zigorraren araubidea garatzeko Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialen argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2019/03/29ko GAO).



4. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergabilketa Erregelamenduak, abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren bidez onartuak, 130. artikulua 1. apartatua aipatzen dituen kasuetan, adostasun espresua eman beharko da, aipatutako artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. sekzioa. Zerga alorreko urraketa eta zigor jakin batzuetarako arau bereziak

1. azpisekzioa. Zigorrak kalkulatzea Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 195., 196. eta 197. artikuluetan jasota dauden urraketak egiten direnean.

13. artikulua. Zigorraren oinarria kalkulatzea Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 195., 196. eta 197. artikuluetan jasota dauden urraketak egiten direnean.

1. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 195. artikuluan aurreikusten duen urraketaren kasuan, zigorraren oinarria egindako erregularizazioaren ondorioz ordaindu beharreko kopurua izango da, hurrengo apartatuetan aipatzen diren kasuetan izan ezik.

2.⁸ Egindako erregularizaziotik ateratzen diren kopuruak jokabide zigorgarri eta ezigorgarrien ondorio direnean, zigorraren oinarria kalkulatu da ordaindu beharreko zenbatekoa hurrengo 3. apartatua arautzen den koefizientearekin biderkatuta. Ondorio horietarako, aipatutako koefizientearen kalkulua egiteko ez dira kontuan hartuko justifikatu gabeko ondare irabazietatik eta aitortu gabeko errentetatik datozen gehikuntza erregularizatuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauaren 50. artikuluko 3. apartatua eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 123. artikuluko 6. apartatua ezarritakoaren emaitza direnean.

3. Aurreko apartatua aipatutako koefizientea zatiki baten emaitza izango da. Zatiki horretan balio hauek izango dira:

a) Zenbakitzailean, osagai hauen batura: alde batetik, oinarri ezargarri edo likidagarrian erregularizatu diren gehikuntza zigorgarriak zergaren karga tasarekin biderkatuta ateratzen den emaitza, baldin eta gehikuntza horiek tasa proportzional batez kargatutako oinarriaren zatian gertatzen badira, edo tarifa bat aplikatuta ateratzen den batez besteko karga tasarekin biderkatuta ateratzen den emaitza, baldin eta gehikuntza horiek tarifa horrek kargatutako oinarriaren zatian gertatzen badira; eta bestetik, zerga kuotan edo ordaintzeko kopuruan zuzenean egindako gehikuntza zigorgarriak.

⁸ Apartatu hau martxoaren 20ko 6/2019 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko sei apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zerga urraketen eta zigorraren araubidea garatzeko Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialen argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2019/03/29ko GAO).



b) Izendatzailean, osagai hauen batura: alde batetik, oinarri ezargarri edo likidagarrian erregularizatu diren gehikuntza guztiak zergaren karga tasarekin biderkatuta ateratzen den emaitza, baldin eta gehikuntza horiek tasa proportzional batez kargatutako oinarriaren zatian gertatzen badira, edo tarifa bat aplikatuta ateratzen den batez besteko karga tasarekin biderkatuta ateratzen den emaitza, baldin eta tarifa horrek kargatutako oinarriaren zatian gertatzen badira, eta bestetik, zerga kuotan edo ordaintzeko kopuruan zuzenean egindako gehikuntzak.

Bi zenbaki hamartar jarrita biribilduta adieraziko koefiziente hori.

4. Erregularizazioak oinarrian, kuotan edo ordaintzeko kopuruan doikuntzak egin beharra ekarri duenean eta horrek zerga zorra gutxitu duenean, haien zenbatekoa ez da kontuan hartuko aurreko apartatuan aipatutako koefizientea kalkulatzeko.

5.⁹ Aurreko apartatuetan xedatutakoa hala izanik ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 195. artikulua 7. apartatuan aurreikusitako jokabidea erakusten denean, epealdi batean oker aitortutako zenbatekoek ez dute gutxituko zigorraren oinarria epealdi horren erregularizazioan.

6. Aurreko apartatuetan xedatutakoa zigorraren oinarria kalkulatzeko aplikatuko da baldin eta egiten diren urraketak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 196. eta 197. artikuluetan aurreikusitakoak badira. Nolanahi dela ere, ulertuko da ordaintzen ez diren kopuruak aipatzen direnean kopuru horiek ondoko hauek direla:

a) 196. artikulua kasuan, likidazioaren zenbatekoa aitortutako aurkeztu ez denean edo, bestela, zerga behar bezala likidatuta ateratzen den zenbatekoaren eta aitortutako datuen arabera zilegi izango zen zenbatekoaren arteko aldea.

b) 197. artikulua kasuan, urraketa egitearen ondorioz oker itzultako zenbatekoa.

14. artikulua. Datuak ezkutatzek duen eragina kalkulatzeko.¹⁰

1. Zerga Administrazioari datuak ezkutatu zaizkiola ulertuko da autolikidaziorik edo aitortutako aurkeztu ez denean, aurkeztutako autolikidazioek edo aitortutako inoiz izan ez diren gertaera edo eragiketak zein zenbateko faltsuak jasotzen dituztenean, edo zerga zorra zehazteko kontuan hartzekoak diren datuak (eragiketak, sarrerak, errentak, produktuak, ondasunak edo bestelakoak) erabat aipatu gabe utzi direnean edo horien zati bat bakarrik adierazi denean, betiere

⁹ Apartatu hau martxoaren 20ko 6/2019 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko sei apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zerga urraketan eta zigorraren araubidea garatzeko Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialen argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2019/03/29ko GAO).

¹⁰ Artikulu hau martxoaren 20ko 6/2019 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko zazpi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zerga urraketan eta zigorraren araubidea garatzeko Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialen argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2019/03/29ko GAO).



ezkutaketatik eratorritako zorrak zigorraren oinarrian duen eragina % 10etik gorakoa bada.

Aurrekoa hala izango da nahiz eta ezkutatutako datuak liburu edo erregistroetan kontabilizatuta edo jasota agertu, edo zerga Administrazioarentzat datu horiek ezagunak izan hirugarrenek egindako aitopenen bidez, informazio errekerimenduen bitartez edo zigorraren xede ez diren zerga kontzeptuei buruz subjektu urratzaileak egiten dituen aitopanak direla medio.

Ezin izango da esan zirkunstantzia hori gertatzen denik subjektu urratzaileak bere autolikidazioan edo aitopenean zerga zorra zehazteko behar diren datu guztiak jaso dituenen eta zorra subjektu urratzaileak zerga araudia oker aplikatzeagatik gutxitu denean.

2. Zirkunstantzia hori ez da gertatuko erregelamendu honen 10. artikuluko 2. apartatuko c) letran jasotakoa aplikagarria denean eta aurkeztutako autolikidazioak edo aitopanak gorabehera nabarmenak dituen kontabilitatea zehatz islatzen duenean.

3.¹¹ Datuak ezkutatzeak zigorraren oinarrian duen eragina kalkulatzeko, ondorengo 4. apartatuan araututako koefizientea aplikatuko da. Ondorio horietarako, aipatutako koefizientearen kalkulua egiteko ez dira kontuan hartuko justifikatu gabeko ondare irabazietatik eta aitortu gabeko errentetatik datozen gehikuntza erregularizatuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarilaren 17ko 3/2014 Foru Arauaren 50. artikulua eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 123. artikulua. 6. apartatuan ezarritakoaren emaitza direnean, Europar Batasunetik kanpoko ondasun edo eskubideekin lotura izanez gero.

4. Aurreko apartatuan aipatutako koefizientea zatiki baten emaitza izango da, eta zatiki horretan balio hauek izango dira:

a) Zenbakitzailean, osagai hauen batura: alde batetik, zerga oinarrian edo oinarri likidagarrian informazioa ezkutatuta egindako gehikuntzak zergaren karga tasarekin biderkatuta ateratzen den emaitza, baldin eta gehikuntza horiek tasa proportzional batez kargatutako oinarriaren zatian gertatzen badira, edo tarifa bat aplikatuta ateratzen den batez besteko karga tasarekin biderkatuta ateratzen den emaitza, baldin eta gehikuntza horiek tarifa horrek kargatutako oinarriaren zatian gertatzen badira; eta bestetik, informazioa ezkutatuta zerga kuotan edo ordaintzeko kopuruan zuzenean egindako gehikuntzak.

b) Izendatzailean, osagai hauen batura: alde batetik, zerga oinarrian edo oinarri likidagarrian erregularizatu diren gehikuntza zigorgarri guztiak zergaren karga tasarekin biderkatuta ateratzen den emaitza, baldin eta gehikuntza horiek tasa

¹¹ Apartatu hau urriaren 5eko 12/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Zergen Foru Arau Orokorra garatzeko erregelamendu jakin batzuk aldatzen ditu (2021/10/8ko GAO). Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean.



proporzional batez kargatutako oinarriaren zatian gertatzen badira edo, tarifa bat aplikatuta ateratzen den batez besteko karga tasarekin biderkatuta ateratzen den emaitza, baldin eta tarifa horrek kargatutako oinarriaren zatian gertatzen badira; eta bestetik, zerga kuotan edo ordaintzeko kopuruan zuzenean egindako gehikuntza zigorgarriak.

Bi zenbaki hamartar jarrita biribilduta adieraziko da koefiziente hori.

5. Erregularizazioak oinarrian, kuotan edo ordaintzeko kopuruan doikuntzak egin beharra ekarri duenean eta horrek zerga zorra gutxitu duenean, haien zenbatekoa ez da kontuan hartuko aurreko apartatuan aipatutako kalkuluak egiteko.

6. Datuak ezkutatzek duen eragina kalkulatzeko, aurrez erregularizatutako kopuru guztiak hartuko dira kontuan, alde batera utzita Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 195., 196. 197. eta 199 artikuluetan jasotakoa aplikatuta zein emaitza ateratzen den.

7. Autolikidazioa edo aitortpena aurkezten ez denean, ulertuko da datuak ezkutatzegatik sortutako zorrak % 100eko eragina duela zigorraren oinarrian.

15. artikulua. Faktura, frogagiri edo agiri faltsu edo faltsutuak nahiz tarteko pertsona erabiltzearen eragina kalkulatzeari.

1.¹² Agiri edo euskarri faltsu edo faltsutuak erabiltzeak zigorraren oinarrian duen eragina kalkulatzeko, ondorengo 2. apartatuan araututako koefizientea aplikatuko da. Ondorio horietarako, aipatutako koefizientearen kalkulua egiteko ez dira kontuan hartuko justifikatu gabeko ondare irabazietatik eta aitortu gabeko errentetatik datozen gehikuntza erregularizatuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauaren 50. artikulua eta 3. apartatuan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 123. artikulua eta 3. apartatuan ezarritakoaren emaitza direnean.

2. Aurreko apartatuan aipatutako koefizientea zatiki baten emaitza izango da. Zatiki horretan balio hauek izango dira:

a) Zenbakitzailean, osagai hauen batura: alde batetik, faltsuak edo faltsutuak diren faktura, frogagiri edo beste agiri edo euskarri batzuk erabili direla eta erregularizatu beharreko oinarri ezargarri edo likidagarrian egindako gehikuntzak zergaren karga tasarekin biderkatuta ateratzen den emaitza, baldin eta gehikuntza horiek tasa proporzional batez kargatutako oinarriaren zatian gertatzen badira edo, tarifa bat aplikatuta ateratzen den batez besteko karga tasarekin biderkatuta ateratzen den emaitza, baldin eta tarifa horrek kargatutako oinarriaren zatian gertatzen badira; eta, bestetik, faltsuak edo faltsutuak diren faktura, eta frogagiri edo beste agiri edo

¹² Apartatu hau martxoaren 20ko 6/2019 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko zortzi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zerga urraketen eta zigorraren araubidea garatzeko Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialen argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2019/03/29ko GAO).



euskarri batzuk erabili direlaeta erregularizatu beharreko zerga kuotan edo ordaintzeko kopuruan zuzenean egindako gehikuntzak.

b) Izendatzailean, osagai hauen batura: alde batetik, oinarri ezargarri edo likidagarrian erregularizatu diren gehikuntza zigorgarri guztiak zergaren karga tasarekin biderkatuta ateratzen den emaitza, baldin eta gehikuntza horiek tasa proportzional batez kargatutako oinarriaren zatian gertatzen badira edo, tarifa bat aplikatuta ateratzen den batez besteko karga tasarekin biderkatuta ateratzen den emaitza, baldin eta tarifa horrek kargatutako oinarriaren zatian gertatzen badira; eta, bestetik, zerga kuotan edo ordaintzeko kopuruan zuzenean egindako gehikuntza zigorgarriak.

Bi zenbaki hamartarrez biribilduta adierazi behar da koefiziente hori.

3. Erregularizazioak oinarrian, kuotan edo ordaintzeko kopuruan doikuntzak egin beharra ekarri duenean eta horrek zerga zorra gutxitu duenean, horien zenbatekoa ez da kontuan hartuko aurreko apartatuan jasotako kalkuluak egiteko.

4. Agiri edo euskarri faltsu edo faltsutuen eragina kalkulatzeko, aurrez erregularizatutako kopuru guztiak kontuan hartu behar dira, alde batera utzita Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 195., 196., 197. eta 1999. artikuluetan jasotakoa aplikatuz zein emaitza ateratzen den.

5. Artikulu honen aurreko apartatueta jasotako arau berak aplikatuko dira tarteko pertsona edo entitateak erabiltzeak zigorraren oinarrian duen eragina zehaztean, erregelamendu honek 10. artikuluen 4 apartatuan aplikaziozkoa den portzentajea kalkulatzeko.

2. azpisekzioa. Beste zerga urraketa eta zigor batzuk mugatu eta kuantifikatzeko arau bereziak.

16. artikulua. Zerga urraketa, partida positiboak edo negatiboak nahiz itxurazko zergakredituak oker zehatzu edo frogatzeagatik.

1. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 199.1 artikuluen bigarren paragrafoan aipatutako urraketaekin foru arau horrek 195., 196. eta 197. artikuluetan araututako urraketak gertatzen direnean, zigorraren oinarria artikulua honen ondorengo apartatueta jasotakoaren arabera zehaztuko da.

2. Errenta garbia oker aitortu denean, %10eko zigor proportzionala aplikatuko zaio honela kalkulaturako zigor oinarriari:

a) Ordaintzeko dauden kopuruak bakarrik zergaren oinarrian aplikatu badira, konpentsatu den errenta garbiaren gehikuntza zigorgarria izango da zigorraren oinarria.

b) Oraindik ordaintzeko dauden kopuruak bakarrik zergaren kuotan edo ordaintzeko kopuruan aplikatu badira, zigorraren oinarria zehatzu ahal izateko,

kuotan edo ordaintzeko kopuruan konpentsatu edo kendu diren zenbatekoak koefiziente honen emaitzarekin biderkatu behar dira, azken hori bi zenbaki hamartarrez biribilduta:

1. Zenbakitzailean, oker aitortu den errenta garbi zigorgarria.
2. Izendatzailean, erregularizatutako kuota osoaren eta hasieran aitortutako kuotaren arteko diferentzia.

c) Oraindik ordaintzeko dauden kopuruak zergaren oinarrian nahiz kuotan edo ordaintzeko kopuruan aplikatu badira, zigorraren oinarria zehazteko, aurreko a) eta b) paragrafoetan xedatutakoa aplikatuta ateratzen diren kopuruak batu behar dira, ordena horretan kalkulatuta. Aurreko b) paragrafoan jasotako zigorraren oinarria den errenta garbi zigorgarriaren gehikuntza zehazteko, errenta garbi zigorgarriaren gehikuntza osotik kendu behar da, lehendabizi, zergaren oinarrian konpentsatzeko dauden kopuruekin konpentsatu den zatia.

3. Jasanarazitako kuota, kendu beharreko kopurua edo kuota edo zergaldi bateko zerga pizgarriak oker aitortu direnean eta konpentsazioa bakarrik zergaren kuotan edo ordaintzeko kopuruan aplikatu denean, konpentsatu den kuotagehikuntza zigorgarriari aplikatu behar zaio %30eko isun proportzionala.

4. Zergaldiko errenta garbia nahiz kentzeko dauden kopuruak edo zergaldi horretako zerga pizgarriak oker aitortu direnean, honela kalkulatu da zigor oinarria:

a) Bakarrik konpentsatzeko dauden kopuruak aplikatu badira zergaren kuotan edo ordaintzeko kopuruan, konpentsazio hori proportzionalki egotzi beharko zaio errenta garbi zigorraren gehikuntzari nahiz kuotan oker aitortutako kopuruei edo zerga pizgarriei, horietako bakoitzari dagokion zigor oinarriaren zatia zehazteko.

Aipatu konpentsazioa honela zehaztuko diren koefizienteen arabera egotziko da: partida erregularizatuaren arabera bidezkoak diren zatikien emaitza 100ekin biderkatuta, aipatu zatikien zenbakitzailea hau izanik kasuaren arabera:

1. Errenta garbi zigorgarriaren gehikuntza zergaren karga tasarekin biderkatuta ateratzen den emaitza, gehikuntza hori tasa proportzional batez kargatutako oinarriaren zatian gertatzen bada.
2. Errenta garbi zigorgarriaren gehikuntza tarifa aplikatuta lortutako batez besteko karga tasarekin biderkatuta ateratzen den emaitza, gehikuntza hori tarifa batez kargatutako oinarriaren zatian gertatzen bada.
3. Zergaren kuotan zuzenean egindako gehikuntza zigorgarriak.

Kasu guztietan, izendatzailean osagai hauen batura jaso behar da: alde batetik, oinarri ezargarri edo likidagarrian erregularizatu diren gehikuntza guztiak zergaren karga tasarekin biderkatuta ateratzen den emaitza, baldin eta gehikuntza horiek tasa proportzional batez kargatutako oinarriaren zatian gertatzen badira edo, tarifa bat aplikatuta ateratzen den batez besteko karga tasarekin biderkatuta ateratzen



den emaitza, baldin eta tarifa horrek kargatutako oinarriaren zatian gertatzen badira; eta, bestetik, zerga kuotan zuzenean egindako gehikuntzak.

Bi zenbaki hamartarrez biribilduta adierazi behar dira koefiziente horiek.

Behin egozpenak zehaztuta, oinarrian errenta garbia gehitzeari dagozkion egozpenak artikuluko honen 2.b) apartatuan jasotakoaren arabera zigortuko dira, eta kuotan edo ordaintzeko kopuruan oker aitortutako kopuruei edo zerga pizgarriei dagozkien egozpena, aldiz, 3 apartatuan jasotakoaren arabera zigortuko da.

b) Zergaren oinarrian konpentsatu edo murrizteko dauden kopuruak eta zergaren kuotan edo ordaintzeko kopuruan konpentsatu edo kentzeko dauden kopuruak aplikatu badira, lehendabizi 2 apartatuko a) paragrafoa aplikatu behar da eta, bigarrenik, 4 apartatuko a) paragrafoa.

17. artikulua. Zerga urraketa, autolikidazio edo aitortenak epe barruan ez aurkezteagatik kalte ekonomikorik sortu gabe.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak, 202.2 artikuluko bigarren paragrafoan aipatutako kasuetan, ez da jarriko autolikidazioa edo aitortena epez kanpo aurkezteagatik dagozkion zigorra epe barruan zuzen aitortu diren datuei dagokienez. Nolanahi ere, aipatu foru arauak 203. artikuluan jasotakoa aplikatuta epez kanpo aurkeztutako autolikidazio edo aitortinari dagokienez bidezkoa izan daiteken zigorra jar daiteke.

18. artikulua. Zerga urraketa, autolikidazio edo aitortenak oker aurkezteagatik kalte ekonomikorik sortu edo banakako informazio errekerimenduei erantzun gabe.

1. Banakako errekerimenduen edo oro har eskatzen diren aitorten kasuan, bakarrik diruzkoak ez diren kopuruei buruzko datuak dituztenean, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak, 203.2.c) artikuluko lehendabiziko paragrafoan xedatutakoa aplikatuko da.

2. Banakako errekerimenduen edo oro har eskatzen diren aitorten kasuan, bakarrik diru kopuruei buruzko datuak dituztenean, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak, 203.2.c) artikuluko bigarren paragrafoan xedatutakoa aplikatuko da, eta honela zehaztuko da aplikaziozko zigorra: aitortu ez diren edo oker aitortutako eragiketen zenbatekoa aitortu beharreko eragiketen zenbatekoaren %10, %25, %50 edo %75etik gorako portzentajea bada, aitortu ez diren edo oker aitortutako eragiketen zenbatekoaren %0.5, %1, %1.5 edo %2ko diruzko isun proportzionala jarriko da. Portzentajea %10etik beherakoa bada, 500 euroko diruzko isun finkoa jarriko da. Era berean, ondorengo apartatuko b) eta c) letretan jasotakoa aplikatuko da, hala badagokio.

3. Banakako errekerimenduen edo oro har eskatzen diren aitorten kasuan, diru kopuruei buruzkoak diren eta ez diren datuak dituztenean, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak, 203.2.c) artikuluan xedatutakoa aplikatuko da, arau hauei jarraituta:

a) Diru kopuruei buruzkoak ez diren datuak oker edo zehaztasunik gabe badaude edo faltsuak badira, zigorraren oinarria izango da datu horiekin lotuta dagoen diru kopuruari buruzko datuaren zenbateko osoa; baina pertsona edo entitate bakarraren diru kopuruari buruzko datu bat baino gehiago eman bada, zigor oinarria zenbateko handiena izango da.

b) Diru kopuruei buruzko datuak eta bestelako datuak oker edo zehaztasunik gabe badaude edo faltsuak badira, zigorraren oinarria izango da emandako edo aitortutako zenbatekoaren eta eskatutako datuaren edo aitortu behar izan zen datuaren zenbateko zuzenaren arteko diferentzia, balio absolutuetan emana. Pertsona nahiz entitate bakarraren diru kopuruari buruz datu oker, zehaztugabe edo faltsu bi edo gehiago ematen direnean, zigorraren oinarria horien guztien arteko diferentzien batura izango da.

c) Diru kopuruari buruzko datu osatugabe, zehaztugabe eta faltsuak pertsona nahiz entitate bakarraren gainekoak badira eta datu horiek elkarren artean lotuta badaude portzentaje bat edo karga tasa bat aplikatzean, datu horiei ezarriko zaien zigor oinarria ondorengo zehaztapenen arabera xedatuko da:

1. Datu osatugabea, zehaztugabea edo faltsua portzentajea edo karga tasa aplikatzen zaion zenbatekoa bada, zigorraren oinarria izango da emandako edo aitortutako zenbatekoaren eta eskatutako datuen edo aitortu behar ziren datuen zenbateko zuzenaren arteko diferentzia, balio absolutuetan emana. Pertsona nahiz entitate bakarrari buruzko datu osatugabe, zehaztugabe edo faltsuak bi edo gehiago direnean, zigorraren oinarria horien guztien arteko diferentzien batura izango da

2. Datu osatugabe, zehaztugabe edo faltsua portzentajea edo karga tasa bada, zigorraren oinarria izango da portzentajea edo karga tasa aplikatu ondoren emaitza gisa aitortutako zenbatekoaren eta portzentaje edo karga tasa zuzena aplikatuta ateratzen den zenbatekoaren arteko diferentzia, balio absolutuetan emana. Pertsona nahiz entitate bakarrari buruzko portzentaje edo karga tasa osatugabe, zehaztugabe edo faltsuak bi edo gehiago direnean, zigorraren oinarria horien guztien arteko diferentzien batura izango da

3. Datu osatugabe, zehaztugabe edo faltsuak portzentajeari edo karga tasari buruzkoak nahiz portzentajea edo karga tasa aplikatzen zaion zenbatekoari buruzkoak badira, zigorraren oinarria izango da emandako edo aitortutako zenbatekoen eta eman edo aitortu behar izan direnen arteko diferentzien batura, balio absolutuetan emana.

4. Aurreko 3 apartatuan jasotako kasuetan, apartatu horrekin bat etorritik zehaztu den zigor oinarri osoaren eta eskatu diren edo aitortu behar izan diren diru kopuruei buruzko datu guztien zenbateko zuzenen arteko erlazioaren arabera xedatuko da aplikatu beharreko isun proportzionala; bestalde, portzentaje edo karga tasa bat aplikatzean elkarren artean lotuta dauden datuei dagokienez, portzentajea edo karga tasa aplikatzeko datuen zenbateko zuzenen arabera.

5. Aurretik behar ez bezala aurkeztutako aitorpenak eta autolikidazioak zuzentzeko aitorpen eta autolikidazioak aurkezten badira borondatez eta

errekerimendurik jaso baino lehen, eta aitorpen edo autolikidazio berri horretan jasotzen diren datuak osatugabeak, zehaztugabeak edo faltsuak badira, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak, 203. artikuluan jasotakoaren arabera oker aurkeztu diren datu berri horiei dagokien zigorra baino ez da jarriko.

6. Ez da inolako erantzukizunik izango errekerimendu bati oker erantzun ondoren borondatez, eta errekerimendu berria egin baino lehen, aurretik aurkeztutakoa zuzentzeko den erantzun berria ematen bada.

Aurreko paragrafoan azaltzen den kasuarekin lotuta, errekerimendurako erantzun berrian datu osatugabe, zehaztugabe edo faltsuak ematen badira, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak, 203. artikuluan jasotakoaren arabera erantzun berrian oker aitortutako datuei dagokien zigorra baino ez da jarriko.

18 bis artikulua. Zerga urraketa, autolikidazioak, aitorpenak edo zerga garrantzia duten bestelako dokumentuak bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoak erabiltzeko obligazioa bete gabe aurkezteagatik.¹³

Autolikidazioak, aitorpenak edo zerga ondorioak dituzten bestelako dokumentuak bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoak erabiltzeko obligazioa bete gabe aurkezteagatik ez da inolako erantzukizunik sortuko, baldin eta haiek aurrerago aurkezten badira bitarteko horiek erabilia, aldeztu aurretiko errekerimendurik izan gabe eta zigor prozedura bat hasi baino lehen.

19. artikulua. Zerga urraketa, kontabilitate eta erregistro obligazioak ez betetzeagatik.

1.¹⁴ Arau urratzaileak izan duen negozio zifraren ehuneko 10eko isun proportzionala jarri behar denean, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 205.2 artikuluko c) letran jasotakoaren arabera, kontabilitatea, zergen arloko arauak exijitutako liburu edo erregistroak erabili edo zaindu ez direlako, edo euskarri moduan erabiltzen diren programak, fitxategiak eta artxibo informatikoak eta kodifikazio sistemak gordetzeko obligazioa bete ez delako, arau hauek aplikatu behar dira:

a) Kontabilitatearen kasuan: aipatutako liburuak, programak, fitxategiak, artxiboak edo sistemak erabili edo zaindu ez diren ekitaldi ekonomikoan urratzaileak izan duen negozio zifra hartuko da kontuan.

¹³ Artikulu hau urriaren 5eko 12/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Zergen Foru Arau Orokorra garatzeko erregelamendu jakin batzuk aldatzen ditu (2021/10/8ko GAO). Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean..

¹⁴ Apartatu hau martxoaren 20ko 6/2019 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko hamar apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zerga urraketen eta zigorraren araubidea garatzeko Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialen argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2019/03/29ko GAO).



b) Zerga arauak exijitutako liburu edo erregistroen kasuan: aipatutako liburuak, erregistroak, programak, fitxategiak, artxiboak edo sistemak erabili edo zaindu ez diren zergaldian nahiz likidazio aldian urratzaileak izan duen negozio zifra hartuko da kontuan.

2. Zerga berezien arloko arauak exijitutako liburu edo erregistroen kasuan, arau hauek aplikatuko dira:

a) Arau urraketa egin bada eragiketak zehaztasunik gabe aipatzen edo isilean gordetzen direlako edo konturen bat benetan duen esanahiaren orde z bere izaerarekin bat ez datorren beste batekin erabiltzen delako, eta idaztoharretan ez bada diru kopuruei buruzko daturik eman, zigorra jarri behar denean liburuan zein erregistroan idatzi ez diren edo oker idatzi diren eragiketekin lotutako produktu fabrikatuen balioa hartuko da kontuan.

b) Urraketa egin bada liburuak edo erregistroak erabili edo zaindu ez direlako, soilik hartuko da negozio zifratzat liburu edo erregistro horiek ez erabili edo zaintzearekin lotutako produktuei dagokiena.

3.¹⁵ Erregistro liburuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez eramateko obligazioak atzerapena duen kasuetan, arau hauek aplikatuko dira:

a) Atzerapentzat joko da: obligazioa arautzen duen araubidean aurreikusita dagoen epea amaitu eta gero erregistroak helaraztea.

b) Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 205.2 artikularen g) letran jasotako fakturaren zenbatekoaren ehuneko 0,5eko isun proportzionala jarriko da, egindako fakturen eta jasotako fakturen erregistro liburuetan gertatutako atzerapenetan.

Aipatutako portzentajea fakturazio erregistro bakoitzari dagokion zenbateko osoan aplikatuko da, kuotetan eta jasanarazitako eta jasandako errekaruetan barne, baita eragiketarik eratorriak diren balio erantsiaren gaineko zergatik jasotako edo betetako konpentsazioetan ere, hala dagokionean.

Balio erantsiaren gaineko zergaren kuxairzpidetaren araubide berezia aplikatzekoa den eragiketekin bat datozen fakturazio erregistroen kasuan, zenbateko oso bat hartuko da kontuan:

i) Eragiketaren fakturari dagokion erregistroaren kasuan, berari dagokiona, alde batera utzita dagokion kobrantzari edo ordainketari buruzko informazioa horrekin batera bidaltzen den ala ez.

ii) Egin beharreko kobrantzari edo ordainketari dagokion erregistroaren kasuan bakarrik, jakinarazi beharreko diru magnitudeari dagokiona, betiere Balio

¹⁵ Apartatu honi martxoaren 20ko 6/2019 Foru Dekretuaren artikulua bakarrek hama apartatuak edukia aldatu dio. Aipatutako foru dekretuak zerga urraketen eta zigoren araubidea garatzeko Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialen argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2019/03/29ko GAO).



Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduak, abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onartuak, 61 decies artikuluan ezarritakoarekin bat.

Hiruhilekoaren minimoa eta maximoa aplikatzeko orduan, hiruhileko natural bakoitzean egindako arauhauste guztiak hartuko dira kontuan.

c) Inbertsio ondasunen erregistro liburuetan eta Europar Batasunaren barruko eragiketa jakin batzuen erregistro liburuetan izandako atzerapenen kasuan, 150 euro erregistroko diruzko isun finkoa ezarriko da.

4.¹⁶ Alabaina, kontabilitate eta erregistro obligazioak ez betetzearen ondorioz Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 205. artikuluan jasotako arau urraketak ez du inolako erantzukizun administratiborik izango, urratzaile berari 195.etik 201. artikulura bitartean jasotako urraketetako batengatik zigorra jarri behar bazaio kontabilitate eta erregistro obligazioak ez betetzeari dagozkion eragiketen gaineko aitorpena edo autolikidazioa oker egin delako.

20. artikulua. Zerga urraketa, fakturazio edo dokumentazio obligazioak ez betetzeagatik.¹⁷

1. Ezbetetzea eragin duen eragiketaren zenbatekoa, balio erantsiaren gaineko zergaren edo salmentak kargatuko dituen zerga orokorraren ondorioetarako zehaztutako zerga oinarria izango da.

Faktura edo frogagiriren bat zuzentzean fakturazio obligazioak betetzen ez badira, jarri beharreko isun proportzionala balio erantsiaren gaineko zergaren edo fakturan nahiz frogagirian dokumentatutako eragiketa kargatuko duen salmentei buruzko zerga orokorraren zerga oinarriaren zenbatekoari aplikatuko zaio.

2. Fakturak edo frogagiriak gordetzeko obligazioa ez betetzearen ondorioz Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 206. artikuluan jasotako arau urraketak ez du inolako erantzukizunik izango, urratzaile berari 195.etik 201.era bitarteko artikuluetan ezartzen diren urraketengatik zigorra jarri behar bazaio ezbetetze horrek ukitzen dituen eragiketekin lotuta.

21. artikulua. Zerga urraketa, Zerga Administrazioaren lanaren aurka egin, eragozpen edo aitzakiak jarri edo uko egiteagatik.

¹⁶ Apartatu hau martxoaren 20ko 6/2019 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko hamar apartatuak zenbakia aldatu dio; 3.tik 4.era izatera pasatu da. Aipatutako foru dekretuak zerga urraketan eta zigorren araubidea garatzeko Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialen argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2019/03/29ko GAO).

¹⁷ Artikulu hau martxoaren 20ko 6/2019 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko hamaika apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zerga urraketan eta zigorren araubidea garatzeko Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialen argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2019/03/29ko GAO).



1. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak, 208.3 artikulua a), b) eta c) letretan jasotako isunak ezin dira metatu. Horrenbestez, zigor bakarra jarri beharko da, errekerimendu bakoitza kontuan hartu ez den aldien arabera zehaztuko dena.

Aurreko paragrafoan jasotakoa aipatu foru arauak 208.4 artikulua a), b) eta c) letretan jarritako isunei ere aplikatuko zaie.

2. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak, 208.4 artikulua c) letran jasotakoa aplikatzeari dagokionez, argitzeko eskatzen diren eragiketen zenbatekoa ezaguna denean arau hauei jarraituko zaie:

a) Aipatu 4.c) apartatuko lehen paragrafoan jasotako kasuan, informazioa ematen ez den eragiketen zenbatekoa errekeritutako eragiketen zenbatekoaren %10, %25, %50 edo %75etik gorako portzentajea bada, negozio zifraren zenbatekoaren %0.5, %1, %1.5 edo %2tik gorako diruzko isun proportzionala jarriko da, hurrenez hurren, eta gutxienez 10.000 eurokoa eta gehienez 400.000 eurokoa.

Apartatu honetako a) letran aipatzen diren eragiketen zenbatekoa aitortu behar izan zirenen %10 edo gutxiago bada edo ezin bada zigorren zenbatekoa kalkulatu, 10.000 euroko isuna jarriko da zigor gisa.

Apartatu honetako a) letran jasotako arauak aplikatzearen ondorioz 400.000 euro baino gehiagoko zigorra jarri behar bada, zigor horren zenbatekoa aipatu kopururaino murriztuko da.

b) Aipatu 4.c) apartatuko hirugarren paragrafoan jasotako kasuan, informazioa ematen ez den eragiketen zenbatekoa aitortu beharreko eragiketen zenbatekoaren %10, %25, %50 edo %75etik gorako portzentajea bada, negozio zifraren zenbatekoaren %1, %1.5, %2 edo %3tik gorako diruzko isun proportzionala jarriko da hurrenez hurren, eta gutxienez 15.000 eurokoa eta gehienez 600.000 eurokoa.

Apartatu honetako b) letran aipatzen diren eragiketen zenbatekoa aitortu behar izan zirenen %10 edo gutxiago bada edo ezin bada zigorren zenbatekoa kalkulatu, 15.000 euroko isuna jarriko da zigor moduan.

Apartatu honetako b) letran jasotako arauak aplikatzearen ondorioz 600.000 euro baino gehiagoko zigorra jarri behar bada, zigor horren zenbatekoa aipatu kopururaino murriztuko da.

22. artikulua. Zerga urraketa, atxikipenei edo konturako sarrerei buruzko ziurtagiria aurkezteko obligazioa ez betetzeagatik eta tributu bakoitzaren araudian jasotako beste obligazio batzuk ez betetzeagatik.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak, 211. artikuluan jasotako ondorioetarako, urraketa egin dela ulertuko da atxikipena edo konturako sarrera egin behar duten zergapekoek atxikipena edo konturako sarrera egin beharra dakarten errenten hartzaileei eurentzat egin behar duten ziurtagiria ematen ez badiete, atxikipenari eta konturako sarrerari dagokion



zergaren aitorpenak, autolikidazioak edo itzulketa eskaerak aurkezteko epeak igaro baino lehen, betiere zergari buruzko arauetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Era berean, urraketa hori egin dela ulertuko da, nahiz eta zergaren araudiak autolikidazio, aitorpen edo komunikazioak Zerga Administrazioari bide telematikoz aurkeztera behartu, obligazio hori betetzen ez denean haiek telematikoa ez den beste modu batean aurkeztuta.

IV. kapitulua. Zigor prozedura

1. sekzioa. Xedapen orokorrak

23. artikulua. Zerga zigorrak jartzeko prozedura.

1. Arau orokor gisa, zerga zorrak jartzean zergak aplikatzeko prozeduratik bereizitako prozedura erabiliko da, kapitulu honen 2. sekzioan jasotakoaren arabera.

2. Aurreko apartatuan jasotakoa jasota ere, interesatuak zigor espedientea bereizita tramitatzeari uko egiten badio eta adostasun aktak sinatzen badiira, urraketei buruzko arazoak zergak aplikatzeko prozeduraren baitan aztertuko dira, haiei buruzko araudian eta kapitulu honen 3. sekzioan jasotakoaren arabera. Aipatu arazoak ez dira zertan batera aztertu, zerga erregularizazioari adostasuna eman arren interesatua ados ez badago zigor proposamenarekin.

2. sekzioa. Zigor prozeduraren tramitazio bereizia

24. artikulua. Zigor prozedura hastea.

1. Prozedura ofizioz hasiko da, organo eskudunaren erabakia jakinarazten denean. Prozeduran honako hauek agertu behar dira gutxienez:

- a) Ustez urraketa erantzule den pertsonaren edo entitatearen identifikazioa.
- b) Prozedura hastea eragin duen jokabidea, ezar daitezkeen zigorrak eta aplikaziozko mailakatzeko irizpideak, prozeduraren hasierak ekar dezakeena eragotzi gabe.
- c) Zigorrak jartzeko eskumena duen organoaren eta instruktorearen identifikazioa.
- d) Prozeduran alegazioak aurkeztu eta entzunaldia izateko eskubidearen aipamena, eta eskubide hori noiz eta zein epetan erabili daitekeen.

2. Zigor prozedura hasteko eskumena erregelamendu honek edo zigor eskumena duten organoei buruzko antolaketa araudiak finkatutako organoak izango du. Berriazko araurik ez badago, ebatzeko eskumena duen organoak izango du eskumena.

3. Aurreko apartatuan jasotakoa jasota ere, arau berezi hauek aplikatuko dira:



a) Zigor prozedura egiaztatze eta ikertze prozeduraren ondorioz hasten bada, erregelamendu honek 28.1 artikuluan jasotakoa aplikatuko da.

b) Aurreko a) letran jasotako prozeduraren barruko ikuskatze jarduketak badira, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak ikuskatze jarduketan aurka egin, eragozpen edo aitzakiak jarri edo uko egiteagatik jasotako urraketari dagokionez, zigor prozedura hasteko eskumena urraketari lotutako jarduketak egin dituen unitateko buruarena izango da. Nolanahi ere, ikuskaritzakoez besteko organoek beste zigor prozedura batzuk has ditzakete jarduketa horiek direlaeta.

4. Likidazio proposamen bakoitzeko zigor prozedura bat hasiko da; era berean, prozeduraren indarraldian zerga urraketaren bat dakarren eta likidaziorik izango ez duen jokabideagatik ere beharrezko zigor prozedurak hasiko dira. Dena den, urraketa bik arrazoi edo zirkunstantzia berberak dituztenean prozedura desberdinen hasiera eta instrukzioa metatu daitezke, baina horietariko bakoitzerako ebazpen bat eman beharko da.

25. artikulua. Zigor prozedura instruitzea.

1. Ofizios egingo dira zigortu daitekeen arau urraketarik ba ote den zehazteko behar diren jarduketa guztiak.

2. Aurreko apartatuan jasotakoaren ondorioetarako, zigor espedientea ebazteko behar diren frogak, aitorpenak eta txostenak sartuko dira hartan.

3. Interesatuak alegazioak egin eta egoki deritzeten agiri, frogagiri eta frogak aurkeztu ditzakete ebazpen proposamenaren aurreko edozein momentutan.

4. Behin jarduketak amaituta, ebazpen proposamena egin eta interesatuari jakinaraziko zaio; aurreko apartatuan jasotakoa eragotzi gabe, 15 eguneko epea emango zaio interesatuari espedientea ikus dezan eta egoki deritzen alegazioak nahiz agiri, frogagiri eta frogak aurkeztu ditzan.

Alegaziorik aurkezten ez bada, ebazteko organoari bidaliko zaio ebazpen proposamena.

Alegazioak aurkeztu badira, zigorra jartzeko organo eskudunari bidaliko zaio ebazpen proposamena, espedienteko dokumentazioarekin batera, behin alegazioak aztertuta bidezko deritzon ebazpena har dezan.

26. artikulua. Zigor prozedura ebaztea.

1. Organo eskudunak, prozeduraren instrukzioan egindako proposamena eta espedientean biltzen diren agiri, froga eta alegazioak ikusi ostean, ebazpena emango du, horretarako kontuan izan dituen arrazoiak adierazita. Hala ere, ebazpena eman baino lehen, jardun gehiago egiteko agindua eman dezake; horrela bada, jardun guztiak amaitu eta gero ebazpen proposamen berria eman beharko da. Hain zuzen, ebazpen proposamen horri aurreko artikuluen 4 apartatuan xedatutakoa aplikatuko zaio.



Espedientean jasotzen diren gertakariak baino ez dira kontuan hartuko ebazpenean, prozeduraren indarraldian zehaztu badira edo aldez aurretik egiaztatu ondoren prozedurara ekarri badira.

2. Zigorra jartzeko organo eskudunak ondorengo paragrafoan zehaztutako zirkunstantzietako bat gertatu delako ebazpen proposamena zuzentzen badu, interesatuari zuzenketa horren berri emango zaio. Honek, egokitze jotzen dituen alegazioak aurkeztu ditzake 10 eguneko epean, jakinarazpena egin eta ondorengo egunetik aurrera.

Aurreko paragrafoan aipatu zirkunstantziak hauexek dira:

a) Zigorgarritzat jotzea zigor prozeduran zigortzeko modukoak ez diren jokabideetat hartu direnak.

b) Jokabide zigorgarriaren tipifikazioa aldatzea.

c) Zigorra mailakatzen duten zirkunstantziak beste modu batean hautematea.

3. Ebazpena pertsona edo entitate interesatuei jakinaraziko zaie. Jakinarazpenean honako hauek ere aipatu behar dira:

a) Erabili daitezkeen inpugnazio bideak, horiek jartzeko epeak eta zein organori aurkeztu behar zaizkion.

b) Zigorren zenbatekoa non, noiz eta nola bete behar den.

c) Zigorretan egindako murrizpenen zenbatekoak eskatzeko bide ematen duten zirkunstantziak.

d) Ez dira berandutza interesik eskatuko zigorren exekuzioa eten denean garaiz eta forman horien aurkako errekurtsioa edo erreklamazio administratiboa jarri delako.

e) Ebazpena administrazioarekiko auzibidean inpugnatu daitekeenean, jakinaraziko da etetea eskatuz gero berau organo judizialak eskabidearen gaineko epaia eman arte mantenduko dela, interesatuak erregelamendu honetako 30.2 artikuluan jasotako baldintzak betetzen baditu.

4.¹⁸ Etenaldi justifikatuak eta pertsona edo entitate interesdunei egotzi dakizkiekeen atzerapenak ez dira konputatuko prozeduraren ebazpena jakinarazteko gehieneko epearen barruan, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 100. artikuluan eta Ikuskaritza Erregelamenduan jasotakoarekin bat etorritik zigortuko dira.

27. artikulua. Prozedura laburtua.

¹⁸ Apartatu hau martxoaren 20ko 6/2019 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko hamabi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zerga urraketen eta zigorren araubidea garatzeko Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialen argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2019/03/29ko GAO).



Sekzio honetan jasotakoa jasota ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak, 216. artikuluan jasotako zirkunstantziak betetzen badira, zigor prozedura aipatu artikuluan xedatutako moduan eta ondorioekin tramitatuko da.

28. artikulua. Ikuskaritza prozeduretako baten ondorioz hasitako zigor prozedurak bereizita tramitatzeko berezitasunak.¹⁹

1. Zigor prozedura hastea erabakitzeko eskumena prozeduraren ondoriozko ikuskapena garatu duen unitateko buruak izango du, non eta Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiak ez duen beste bat izendatzen.

Prozedura ofizioz hasiko da organo eskudunak erabakia hartzean, bai horren ekimenez eta bai Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiak aginduta edo beste organo batzuk eskaera arrazoitua aurkeztuta. Erabaki hori dena delako ikuskatze prozeduraren edozein momentutan har daiteke edo, bestela, behin prozedura hori amaituta, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 214.2 artikuluan jasotako gehieneko epea bukatu baino lehen.

2. Ikuskapen akta bakoitzeko zigor prozedura bat hasiko da; era berean, ikuskapen prozeduraren indarraldian zerga urraketaren bat dakarren eta likidaziorik izango ez duen jokabideagatik ere beharrezko zigor prozedurak hasiko dira. Dena den, hainbat urraketak arrazoi edo zirkunstantzia berberak dituztenean prozedura desberdinen hasiera eta instrukzioa metatu daitezke, baina horietariko bakoitzerako ebazpen bat eman beharko da.

Aurreko paragrafoan aipa-tzen diren prozeduretan, zigortzen diren urraketak behar bezala indibidualizatuta agertu beharko dira.

3. Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiak prozeduraren instrukzioa agindu diezaioke zigor espedienteak hastea erabakitzeko eskumena duena ez den beste unitate operatibo bati, zerbitzuaren beharrianen edo kasuko zirkunstantzien arabera.

4. (Edukirik gabe)²⁰

5. Alegazioen tramitazioan zehar, interesdunak beti adierazi ahal izango du, modu espresuan, zigor prozeduraren ebazpen proposamenarekin ados dagoela edo harekin ez datorrela bat.

¹⁹ Artikulu hau martxoaren 20ko 6/2019 Foru Dekretuaren artikuluko bakarreko hamahiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zerga urraketan eta zigorren araubidea garatzeko Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialen argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2019/03/29ko GAO).

²⁰ Apartatu hau urriaren 5eko 12/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluko hiru apartatuak edukirik gabe utzi du. Aipatutako foru dekretuak Zergen Foru Arau Orokorra garatzeko erregelamendu jakin batzuk aldatzen ditu (2021/10/8ko GAO). Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean.



Adostasunak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 192. artikuluan jasotako ondorioak izan ditzan, ezinbestekoa izango da adostasunaren agirian bertan ikuskapen prozedurak ondorioztatutako erregularizazio proposamena jasotzea, salbu eta 5. apartatuan ezarritakoa.

6. Interesdunak adierazten badu ez dagoela ados zigor proposamenarekin, zigorra jartzeko eskudun den organoak ebazpen arrazoitua emango du. Hala ere, ebazpen hori eman baino lehen, jarduketa gehiago egiteko agindu dezake.

7. Pertsona edo entitate interesdunak adostasuna ematen badio zigor proposamenari, espresuki uko egiten badio alegazioak aurkezteko epeari, edo epea amaitzen bada alegaziorik egin gabe, aplikagarri izango da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 216. artikuluan 2. apartatuan jasotakoa. Halere, aipatutako artikuluan jasotakoa ez da aplikatuko, baldin eta, artikulua horretan aipatutako hilabeteko epean, zigorra jartzeko eskudun den organoak honako hauetako bat egiten badu: proposamenean antzemandako akatsak zuzentzen dituen zehapen bat jakinarazi, egindako jarduketak prozeduraren gehieneko iraupenaldian osatzeko agindu, zigor proposamena berresten duen ebazpen espresua eman, edo proposamena zuzendu oker dagoela iritzita. Aipatutako jakinarazpena ez bada egiten alegazioak aurkezteko epea amaitu eta hilabete bat igaro baino lehen, jarduketa horrek ez du inolako ondorioz sortuko pertsona edo entitate interesdunarentzat.

Zigorra jartzeko organo eskudunak proposamena zuzentzen badu, zigor proposamen berria pertsona edo entitate interesdunari jakinarazi beharko zaio aipatutako hilabeteko epea igaro baino lehen. Jakinarazpen horretan, pertsona edo entitate interesdunari adierazi behar zaio 15 eguneko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, egoki deritzen alegazioak aurkez ditzakeela. Kasu honetan ere, aplikagarria izango da zigorra zuzentzeko erabakiari adostasun espresua emateak, alegazioak ez aurkezteak, edo alegazio epeari berariaz uko egiteak dituen ondorioei buruz aurreko paragrafoan xedatutakoa.

8. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 217.5 artikuluan ezartzen duen organoak izango du zigor prozedura ebazteko eskumena.

3. sekzioa. Zigor prozedura eta zergak aplikatzeko prozedura batera tramitatzea

29. artikulua. Zigor prozedura eta zergak aplikatzeko prozedura batera tramitatzea

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 213. artikuluan jasotako ondorioetarako, zergak aplikatzeko prozedurarekin batera zerga zigorrak jartzeko prozedurak zerga kudeaketaren erregelamenduan edo Ikuskaritzaren Erregelamenduan horri buruz jasotzen diren arauak izango ditu gidari, kontuan hartuta jarduketak kudeaketako prozeduraren baitan edo zerga ikuskaritzako prozeduraren barruan dauden, hurrenez hurren.



V. kapitulua. Zigorrak exekutatzeari

30. artikulua. Zigorren exekuzioa etetea.

1. Garaiz eta forman administrazio errekurtsua edo erreklamazioa jarri bada, organo eskudunek automatikoki zigorren (diruzkoen eta diruzkoak ez direnen) exekuzioa etengo dute; interesatuak ez du etendura hori eskatu beharko.
2. Zigorra administrazio bidean irmoa denean, zergabiltetako organoek ez dituzte premiamendu prozedurako jardunak hasiko harik eta administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko epea amaitu arte. Epe horretan pertsona edo entitate interesatuak aipatu organoei jakinarazten badie errekurtsua jarri duela eta bertan exekuzioa eteteko eskabidea egin duela, eten hori mantendu egingo da harik eta organo judizialak eskatutako etenari buruzko erabakia hartu arte.
3. Artikulu honetan xedatutakoa behar bezala aplikatzeko, errekurtsuak edo erreklamazioak tramitatzeko eskudun diren administrazio organoek 10 eguneko epean jakinaraziko dizkiete zigorrak exekutatzeko organo eskudunei kasu bakoitzari dagozkion erabakiak eta gorabeherak.

VI. kapitulua. Zerga zigorrak barkatzea

31. artikulua. Zerga zehapenak barkatzeko eskaerak ebatzi ditzaketen organoak.²¹

1. Zerga zehapen irmoak interesdunak aurrez eskatuta barkatu daitezke grazia bidez, betiere Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 194. artikulua 3. apartatuan xedatutakoari jarraiki.
- 2.²² Honako hauek izango dute zerga zehapen irmoak barkatzeko eskumena:
 - a) Diputatuen Kontseiluak, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, baldin eta barkamen eskaera tributuen kudeaketa edo ikuskapen prozedura beretik eratorritako zehapenekin lotuta badago eta haien zenbateko metatua 6.000 eurokoa edo handiagoa bada.
 - b) Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak, gainerako kasuetan.

32. artikulua. Eskatzeko epea.²³

²¹ Artikulu hau 2013ko apirilaren 30eko 16/2013 FORU DEKRETUaren artikulua bakarreko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zerga urraketen eta zehapenen Erregelamendua aldatzen du zehapenak barkatzeari dagokionez. Foru dekretu hau GAOean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2013/05/10).

²² Apartatu hau martxoaren 20ko 6/2019 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko hamalau apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zerga urraketen eta zigorren araubidea garatzeko Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialen argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2019/03/29ko GAO).



Barkamen eskaera hilabeteko epean aurkeztu behar da, zerga zehapena ezarri duen egintza irmo bihurtzen denetik aurrera; eta idatzian eskaera ekarri duten zergatiak edo gertaerak adierazi behar dira.

Alabaina, eskaera aurkezten bada zehapena ezarri duen egintza administratiboa irmo bihurtu aurretik, tramitazioa etenda geratuko da egintza horrek irmotasuna hartu arte, eta eskaera dagokion epean aurkeztu dela joko da.

Zehapena ezarri duen egintza administratiboaren aurka errekurtsu edo erreklamaziorik aurkezten bada tramitazioa etenda dagoen bitartean, aurkeztutako barkamen eskaera onartezin deklaratu da, nahiz eta hori ez den oztopo izango, behin errekurtsu edo erreklamazioa ebatzitakoan, barkamen eskaera berriro aurkezteko.

33. artikulua. Eskaeraren baldintzak.²⁴

1. Eskaera Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari zuzendu behar zaio, eta bertan gutxienez honako datuok adierazi:

a) Pertsona edo entitate eskatzailearen edo, kasua bada, ordezkariaren izendeiturak edo sozietate izena eta IFZ; eta jakinarazpenetarako lekua.

b) Barkamen eskaera zein zerga zehapeni dagokion; eskaera oinarritzeko gertaerak, zergatiak eta erregua ere adierazita.

c) Lekua, data eta eskatzailearen sinadura edo, kasua bada, ordezkariarena.

2. Ordezkaritza bidez jarduten den kasuetan, ordezkari frogatu behar da irailaren 12ko 40/2006 Foru Dekretuak, foru administrazioaren aurrean egin beharreko jarduketetan nortasuna eta ordezkari egiaztatzea arautzen duenak, xedatutakoa kontuan hartuta.

34. artikulua. Espedientea tramitatzea.²⁵

1. Ogasun eta Finantza Departamentuko Idazkaritza Teknikoari dagokio zehapenak barkatzeko espedienteak tramitatzea eta haien ebazpenaren ondorioz zilegi diren likidazio guztiak izapidetzea.

2. Txostenak eskatzea, frogak egitea eta pertsona edo entitate interesdunari entzunaldia ematea beharrezko irizten denean, tramite horiek Idazkaritza

²³ Artikulu hau 2013ko apirilaren 30eko 16/2013 FORU DEKRETUaren artikulua bakarreko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zerga urraketen eta zehapenen Erregelamendua aldatzen du zehapenak barkatzeari dagokionez. Foru dekretu hau GAOean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2013/05/10).

²⁴ Artikulu hau 2013ko apirilaren 30eko 16/2013 FORU DEKRETUaren artikulua bakarreko hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zerga urraketen eta zehapenen Erregelamendua aldatzen du zehapenak barkatzeari dagokionez. Foru dekretu hau GAOean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2013/05/10).

²⁵ Artikulu hau 2013ko apirilaren 30eko 16/2013 FORU DEKRETUaren artikulua bakarreko lau apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zerga urraketen eta zehapenen Erregelamendua aldatzen du zehapenak barkatzeari dagokionez. Foru dekretu hau GAOean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2013/05/10).



Teknikoak egingo ditu Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak III. tituluaren II. Kapituluan jasotako arauei jarraituz.

3.²⁶ Espedientea ebazteko eskumena Diputatuen Kontseiluak duenean eta eskaera osorik edo partez onesten denean, Diputatuen Kontseiluaren Idazkaritzak erabakiaren berri emango die Batzar Nagusiei, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 194. artikulua 3. apartatua xedatzen duena bete dadin. Izaera pertsonaleko datuak behar bezala babeste aldera, komunikazio horretan ez da agertuko espedienteetako pertsona titularren identifikazio daturik.

35. artikulua. Zehapenaren exekuzioa etetea.²⁷

1. Zerga zehapenak barkatzeko eskaera aurkezteak ez du ekarriko, berez eta besterik gabe, zehapenaren exekuzioa etetea.

Guztiarekin ere, zerga zehapenaren exekuzioa etenda geratuko da automatikoki, pertsona edo entitate interesdunak hala eskatuta, baldin eta zehapenaren zenbatekoa, etendurak eragindako berandutza interesak eta sor litezkeen errekarquak ondorengo apartatuetan xedatutako eran bermatzen badira.

2. Eskatzaileak exekuzioa eteteko eratu behar duen bermea Foru Diruzaintzaren Kutxan sartu behar da. Berme hori Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 222.2 artikuluan jasotzen dituenetako bat izan daiteke.

3. Eskaeraren egunetik aurrera joko da onartutzat etendura, aurreko 2. apartatua xedatutakoaren arabera behar besteko bermea aurkezten denean.

Aurkeztutako bermea ez bada behar bestekotzat hartzen zuzendu beharreko akatsen bat izateagatik, Idazkaritza Teknikoak erabaki dezake zehapenaren exekuzioa behinbehinean etetea detektatutako hutsune edo akatsaren zuzenketa tramitatu bitartean. Akatsa emandako epean zuzenduta, etena behin betiko bihurtuko da. Beste edozein kasutan, behinbehineko etena bertan behera utziko da.

4. Barkamen eskaera behin ebatzita zerga zehapenaren zenbatekoa osorik edo zati batean ordaindu behar denean, berandutza interesak likidatuko dira etenduraren epe osoarengatik, betiere kendu gabe Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 26. artikulua 4. apartatua aurreikusitakoa.

²⁶ Apartatu hau martxoaren 20ko 6/2019 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko hamabost apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zerga urraketen eta zigoren araubidea garatzeko Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialen argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2019/03/29ko GAO).

²⁷ Artikulu hau 2013ko apirilaren 30eko 16/2013 FORU DEKRETUAREN artikulua bakarreko bost apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zerga urraketen eta zehapenaren Erregelamendua aldatzen du zehapenak barkatzeari dagokionez. Foru dekretu hau GAOean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2013/05/10).



5. Orobat, zehapenak geroratu edo zatikatzeko eskatu daiteke Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 64. artikuluan ezarritako baldintzetan.

36. artikulua. Ebaztea.²⁸

1. Zerga zehapenen barkamen eskaerak tramitatzeko prozedurak sei hilabeteko epean ebatziko dira gehienez.

Gehieneko epea igarotzen bada berariazko ebazpenik jakinarazi gabe, ukitutako pertsonak eta entitateek ezetsizat jo dezakete beren eskaera isiltasun administratiboa delaeta.

Eskaera aurkeztu bada zehapena ezarri duen egintza administratiboa irmo bihurtu aurretik, aipatutako epea egintza irmo bihurtu ondorengo egunetik aurrera hasiko da kontatzen.

2. Ebazpena zehapena barkatzearen aurkakoa bada, berandutza interesak likidatuko dira barkatu gabeko zehapena ordaintzeko epea amaitzen denetik barkamen eskaera ebazten den egunera arte. Hala dagokionean, bidezko errekarua ere likidatuko da.

Ebazpena aldekoa bada dela zehapen osoaren gainean dela zati baten gainean, eta haren kontura lehendik zenbatekoren bat ordaindu bada, zehapenarengatik ordaindu eta barkatutako zenbatekoaren zatia itzuliko du Zerga Administrazioak. Era berean, bidezkoa den kasuetan, ordaindutako errekaruari dagokion zatia ere itzuliko du Zerga Administrazioak, hasierako zehapena murriztea erabaki den proportzio berean. Barkatutako zehapen zatiarengatik ez da berandutza interesik sortuko, ezta dagokion errekaruarengatik ere, halakorik izan bada.

3. Prozedurari amaiera ematen dion ebazpenaren aurka hautazko berraztertze errekurtoa jar daiteke egintza eman duen organoan, administrazio prozedura erkideari buruzko araudian xedatutakoaren arabera.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Gipuzkoako zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legearen xedapenetara egokitzen duenak, 170.bi.4 artikuluan jasotako urraketa egin denean, ezin izango da zigorrak jarri Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 195., 197., 198. edo 199. artikuluetan xedatutako urraketak direlaeta, kopuruak autolikidazioan ez jasotzeagatik gertatu direnean; orduan, aipatu foru dekretuak jasotako urraketak jarri beharko dira.

²⁸ Artikulu hau 2013ko apirilaren 30eko 16/2013 FORU DEKRETUaren artikulua bakarreko sei apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zerga urraketan eta zehapenen Erregelamendua aldatzen du zehapenak barkatzeari dagokionez. Foru dekretu hau GAOean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2013/05/10).



ALDAKETAK

Honako zerrendan foru dekretuak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- *15/2009 FORU DEKRETUA, maiatzaren 19koa, 2006ko irailaren 26ko 42/06 Foru Dekretuaz onartutako zerga urraketa eta zigorren Erregelamendua aldatzen duena (20090528ko GAO)*
 - Artikulu bakarrak 4. artikulua 3. apartatua, 5. artikulua eta 10. artikuluko 2. apartatua aldatzen ditu.
- *2013ko apirilaren 30eko 16/2013 FORU DEKRETUA, zerga urraketen eta zehapenen Erregelamendua aldatzen duena zehapenak barkatzeari dagokionez (20130510eko GAO).*
 - Artikulu bakarrak 31tik 36ra bitarteko artikulua aldatzen ditu.
- *6/2019 Foru Dekretua, martxoaren 20koa, zerga urraketen eta zigorren araubidea garatzeko Erregelamendua aldatzen duena (2019/03/29ko GAO).*
 - Bere artikulua bakarrak prezeptu hauen aldatu ditu:
 - 4. artikulua.
 - 4 bis artikulua gehitzen du.
 - 7. artikuluko 2. apartatua.
 - 9. artikulua edukirik gabe uzten du.
 - 12. artikulua.
 - 13. artikuluko 2. eta 5. apartatuak.
 - 14. artikulua.
 - 15. artikuluko 1. apartatua.
 - 18 bis artikulua gehitzen du.
 - 19. artikuluko 1. apartatua aldatzen du, 3. apartatuari edukia aldatzen dio eta aurreko edukia 4. apartatu bihurtzen da.
 - 20. artikulua.
 - 26. artikuluko 4. apartatua.
 - 28. artikulua.
 - 31. artikuluko 2. apartatua.
 - 34. artikuluko 3. apartatua.



- *12/2021 Foru Dekretua, urriaren 5ekoa, Zergen Foru Arau Orokorra garatzeko erregelamendu jakin batzuk aldatzen dituena (2021/10/8ko GAO)*

3. artikulua prezeptu hauek aldatzen ditu:

- 14. artikulua 3. apartatua.
- 18 bis artikulua.
- Edukirik gabe uzten da 28. artikulua 4. apartatua